

# Goibeko kale

6ko apirila, 12 z.k.

ALGETAKO ALDIZKARIA



**DANTZA IKASTAROA**



**TXALAPARTA**



**KONTZERTUAK**



**ASENTZIO EGUNA**

F. IRIBAR  
SALBADOR 9-1<sup>a</sup> EZK.

**EGA: "EKINTZAK EZ  
DIRA FALTAKO"**

*Maderas Gallastegi, s.a.*

**MENDI UZTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA**  
Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (Bizkaia) Tel. eta faxa: 6583061.



## EGI akanpada.

Kronika txiki hau hasteko zenbait galdera egingo genizkioke Udaletxeko EAJri:

-Zergaitik antolatu da EGI akanpada Elgetan?

-Interes partikularrak egon al dira EGI akanpada aurrera eramateko?

-EAJren inposaketa izan al da Elgeta herriari?

-Demagun... beste talde batek adib: EGAK, JARRAIK, edo PSOEek eskatzea. Udaletxeak onartuko al luke?

Gure ikuspuntutik ez dugu ulertzen akanpada honen inguruko "montajea" nola izan den, kontutan izanik Elgeta herria tresna hutsa izan dela ekintza honetan.

Elgetarrentzat akanpada hau asteazkenean hasi zen. A zer sorpresa! kaleratu ginenean: Par-king debekatua 4 egunetan.- Dirudienez EAJkoak ez direnak ez dute inpestorik ordaintzen- eta gustatuko litzaiguke jakitzea ea terreno horietan debekatu daitekeen apartaketa. Gainera, badirudi EGikoen zaratak, zikinak, jokaerak, eta abar, ez duela beste gazte jendearenak haina molestatzeko. Azkenean ikusi duguna zera izan da: Gaztea gazte, denen jokaera antzerakoa dela.

Hurrengorako mesedetxo bat eskatuko genioke Udaletxeari: horrelako ekitaldi bat egiterakoan eta beste zenbait kanpo ekintzean ("motoreruak") herritarrengan pentsa dezatela eta ez kanpokoengan bakarrik.

Elgetako udaletxeak ekintza honetarako eman dituen erreztasunak emango balizkie herriko kultur, kirol, gazte... talde desberdinei, Elgetan aktibitate-ekintza gehiago izango genituzke eta gainera herri-tarrentzat.

Beldur gara urtero ez ote den gertatuko.

Migel Aranzeta  
Rebeka Ubera  
Ane Aranzabal

## EGI, udaletxea, eta gure eskubideak.

Lo egiteko eskubidea kendu didate bi gauean segidan, eta hori,

herriko jaietatik at, ezin da onartu.

Eman dezagun orain beste talde bati (politiko ala ez) otutzen zaiola gauza berbera egitea, edo juergan dabilen kuadrila bati gaua ematea kanta eta zarata, edo orain dela urte batzuk bezela, radiokaseta topean jarri, botila bat hartu, eta plazan gaupasa egitea, edo goizeko lauretan etxafleroak botatzea, edo ...

Horiek (EGI -PNVkoek) baimena zuten, eta beste edonork eskubide berdina eduki dezake. Nere ustez hor udaletxeak erru haundia du. Nola ausartuko da udaletxea hemendik aurrera, inori atentzioa deitzen, edo izuna jartzen, zarata dela medio, baimena emon ondoren?

Ez daukat ezer tabernen aurka, ezta ere gazteen aurka, eta akanpada Elgetan egitea pentsatzen badu edozeinek (EGI-PNV bezela), nere ongi etorri beroena, baina gaua lo egiteko da, eta gaupasa egitea nahi badute, Asentziora joatea besterik ez dute, inoren eskubideak zapaldu gabe.

Udaletxekook, hurrengorako adi !

OHARRA: Hau nere iritzi pertsonala da, ez dadila inor mindu, eta norbait irainduta sentitzen bada, aurretik barkamena eskatzen diot.

Joxe

## Kultura, herria eta dinamizatzailea

Zer da dinamizatzaile bat? Zer egiten du dinamizatzaile batek? Ziur nago galdera hauek askoren ahotan egon direla.

Galdera horiek erantzuten saiatuko naiz eta galdera horiek erantzuteko kultura zer den jakitetik abiatu behar gara.

Kulturaren definizio asko daude hartzen dugun ikuspuntuararen arabera. Ni batekin gelditzen naiz: Herriaren sentimentuak, herriaren bizimodua, herrian egiten diren gauza guztiak eta bere arazak konpontzeko biztanleek erabiltzen dituzten baliabide guztiak dira kultura niretzat.

Kontzeptu hori kontutan edukita kultura ez dira museoak, liburuak edo kanpotik datozkigun gauzak bakarrik, baizik eta hemendik, gure barnetik sortzen diren

ekintzak, gure antolatzekeo era, arazoak konpontzeko biztanleok erabiltzen ditugun baliabideak, gure identitatea, hitz baten.

Horrek zer esan nahi du: Horrek esan nahi du gure/zuen esku dagoela herri hau kulturaz osatzea, eta gehiago esan nahi dizuet, udaletxeko kulturarako aurrekontuen murrizketak ez dira hain garrantzitsuak, zuek zeuen bizimodua hobetzeko, hainbat ekitaldi antolatzekeo eta gauzetan parte hartzekeo prest izanez gero.

Herri kultura denon artean egiten da, denon lanarekin, elkarlanean, koordinazioaren bidez. Zentzu horretan da gonbidatzen zaituztedala kultura batzordearen bilertara. Batzordeak irekiak dira eta inizatibaz beteta zauden herritar horri zuzentzen ari naiz. Zu jubilatua, zu gaztea, umea eta emakumea etor zaitez guregana, Elgeta kulturaz betetzeko.

Elgetak baditu azpiegitura batzuk, kultur-etxea erabilgarria da. Lehenengo pausoa emanda dago, eta bigarren pausoa dinamizazioa da. Ekarri zuen proiektuak, zuen zain daude Elgetako azpiegiturak, etorri eta erabil itzazue.

Ana Sousa



## Udaberria



**E**rdal esaera batek dioen bezala, "la primavera la sangre altera", eta dirudienez, egia da. Lehenengo eguzki izpi irankorrekin bat, guk ere, naturak bezala eraberritzeko nahia sentitzen dugu. Neguko hiru hilabeteetan zehar, herrialde asko

hodeien azpian bizi dira. Hain denbora luzean eguzkiaren eragin onuragarritik hurrin egoteak, jende askoren animoak jeitsiarazten ditu. Eguzkiak berotzen duenean ordea, ez dago arazorik. Zergaitik?

Zientzilari eta psikologo ezberdinen azken ikerketen arabera, neguan eguzki orduak jeisten direnean, jende askok depresio berezi bat jasaten du: umore txarra, insomnioa, apatia, nekealdi luzeak eta kontzentrazio falta dira depresioaldi honen ezaugarriak, eta "trastorno afectivo estacional" izenarekin ezagutzen da.

Dirudienez, eguzki argiak gure burmuineko glandula edo guruin berezi bat (pineala) kitzikatzen du. Glandula honek melatonina hormona ixurtzen du, eta jakina da hormona honek animalien loaldiak eta jokabide sexualak kontrolatzen dituela. Teoria honen arabera, neguan, eguzki orduak jeisten direnean, glandula honek ez du lan gehiegi egiten, melatonina maila gure gorputzean jeitsi egiten da, eta tristeago sentitzen omen gara. Udaberrian ordea, eguzkia bete-betean agertzen hasten denean, melatonina hormonak gora egiten du odolean.

Udaberriko odolaren aldatze horrek, badu beraz bere azalpen zientifikoa melatonina hormona berezi horrengan. Hala ere, nik ez nuke nahi horrelakoetan sinisterik. Bizitza eta bere gorabeherak hormonen bidez bakarrik azaltzea erredukzionismo bat da. Hormonen bidez maitemintzen al gara? edo hormonak al dira bizirik sentiarazten gaituztenak?. Ez dut uste. Nik pertsonalki, nahiago dut udaberrian gertatzen dena azalpenik gabeko misterioa dela pentsatzea, guztiz egia ez bada ere. Horrela behintzat udaberriari botako dizkiogu jokabide arraroaren erruak, eta ez geure gorputzeko hormona ditxozozko horri.

Ibane Abasolo Olaortua.

## Uda usaina



**D**uela hilebete eskas pasatu dira Aste Santuko oporrak eta hiru hilebete barru oporretan egongo gara berriro.


Eguraldi ona dago eta horrek gauza asko egitera bultzatzen gaitu. Alaiago gaudela ematen du, egunak argiagoak dira eta hobeto aprobetxatzen ditugu beranduago iluntzen baitu. Neguan erabili ditugun jantziak baztertzen hasten gara baina eransten ditugunean... hartutako kiloak nabaritzen dira. Orduan urduri jartzen gara eta "dieta express" delako bat egingo dugula zin egiten diogu geure buruari, bestela erositako bainujantzi berria ezin izango dugu jantzi. Baina gauzak egitekotan ondo egin behar dira eta hobeto da gaur bertan hastea (janariak zainduz eta kirol piska bat eginez, hobe neurtua baldin bada) datorren hilean baino.

Ikasketekin gauza bera gertatzen da. Denok dakigu eguraldi onak ez gaituela ikastera gonbidatzen baina konturatu behar dugu azken sprint-ean gaudela eta gaur bertan poliki-poliki hasten bagara ikasten hobeto ibiliko garela, azterketa garaian ez gara eta hain estu ibiliko.

Oraindik gauza asko egiteko garaiz gaude, aprobetxa dezagun ba daukagun denbora, oporrak ailegatzen direnean ondo pasatzeko aukera izateko, eta ez ahaztu hiru hilabete falta direla oraindik eta ez dugula lorik hartu behar!

Maite Peñalber.

Argitarapen honen edizioko laguntzailea



kutxa fundazioa



Eusko Jaurilaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honen argitaratzailea

## GOIBEKOKALE

**Argitaratzailea:** Elgetako Gazte Asanblada. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Laguntza berezia:** Ozkarbi elkarte. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Oxel Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Sarasua eta Iker Irazabal. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Argazkien errebelazioa:** Txuri-Beltz argazkizale taldea. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Ibane Abasolo, Maite Peñalber eta Jabier Aranzeta. **Administrazioa:** Esti Retolaza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditz Billa eta Eider Etxaniz (Tel: 789085edo768019). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 600 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

*Colaboratzaileak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik*



## Aldizkariko inkestak

Joan den hilabeteko aldizkariarekin batera, inkesta bat bidali genuen etxeetara. Galdera hauen helburua *Goibekokaleri* buruz duzuen iritzia jakitea da. Era berean, zuen ideiak ondorioak ateratzeko bide aparta dira, eta hainbat proposamen egiteko aukera duzue bide batez. Dagoeneko hasi gara jasotzen erantzun batzuk, baina ebaluaketa egiteko portzentai altu bat esku artean izatea komeni zaigu. Udaletxe azpiko buzoian utzi ditzakezue zuen inkestak edo *Goibekokalera* bidali (Salbador kalea 2 Elgeta).

## Herri Urrats eta Ibilaldirako autobusak

Maiatzaren 12an, eta Senpereko lakuaren inguruan, iparraldeko ikastolen eguna ospatukoda. Maiatzaren 26an berriz, Trapagan, Ibilaldia izango da. Jai hauetara joateko, Gazte Asanbladak autobusak antolatu ditu. Herri Urratsera, goizeko 8etan aterako da eta 1.300 pta kostako da; Ibilaldira joateko 1.000 pta ordaindu behar da eta autobusa, 9:30etan irten go da. Izen ematea, Haizean eta Gazte Asanbladako lokalean.

## Ozkarbi Elkartearen eguna

Igandean, maiatzaren 5ean bazkaria antolatu du Ozkarbi egun hau ospatzeko. Bazkaria 1000pta izango da eta joateko asmoa duenak 500pta aurreratu behar du. Dirua buzoian sartu edo zuzendaritzako norbaiti eman. Kalejiran eta bazkarian arrasateko Txinparta taldea izango da.

# Larraitz Retolaza: "Hezkuntzako delegazioak 2 milioi aurreratu ditu eskolako lanak amaitzeko"

Apirilaren 24an, Guadalupe Ibarbia (eskolako zuzendaria), udaletxeko ordezkariak eta guraso elkartetik Mirari Larrañaga, Donostian bildu ziren M<sup>a</sup> Carmen Marin, delegazioko ordezkariarekin. Bilera honetan lortutako akordioaren arabera 2 milioi gehiago emango ditu delegazioak, eskolan amaitu gabeko premiazko obrekin hasteko.

1995eko irailan eskola berriak ireki ziren. Hilabete gutxi hauetan hainbat lan amaitu gabe gelditu direnez, arazoak daude. 150 miloiko aurrekontua zuen eraikuntza honek, baina enpresa eraikitzaileak hasieran uste ziren baino gastu gehiago egin zituen. Ondorioz eta obra amaitu ahal izateko, 20 milioi gehiago eskatu zitzaion delegaziolari. Eskaera honi erantzunez, 15 milioi eman zituen hezkuntzako delegazioak. Eskola eraikitzen ari zen enpresak dirutza honekin nahikoa izan ez zuenez, gauza batzuk amaitu gabe utzi zituen. Hasieratik irakasle eta gurasoek beraien kezkak azaldu zituzten udaletxearen aurrean eta honek delegazioko ordezkariarekin bilera bat eragin zuen.

Eraikuntzaren barruan hainbat arazo izanik, irakasle eta gurasoek kexa batekin aurkeztu dira Donostian, udaletxekoekin batera. Zerrenda horretan puntu asko zeuden: berogailuarenfuntzio-

namendu okerra neguan zehar, pertsianen falta eguzkitik babesteko, haur txikien jolastokiko telaituko matxurak, eskolaurreko umeen konketetatik ura kanpora ateratzen da, baranda bajuak...

Larraitz Retolazak adierazi digunez "arazo hauek laister izango dute konponbidea. Baina oraindik obra haundiago bat geratzen da, eskolako sarreran dagoen zoluarena alegia. Ziur ez bada ere konponketa hau egiteko itxaron egin behar da. Hala ere, delegazioren lana izaten jarraitzen du". Sarreran euri putzuak egiten dira eta oso irristakorra gelditzen da.

## Urbanizazio ardurak

Eskola barruan segurtasuna hobetu nahi dute baranda altuagoak ipiniz, baina kanpoan ere segurtasun arazoak daudela azpimarratzen dute irakasle eta gurasoek. Kanpoko hesiko oholen artetik umeak erraz pasatzen dira eta elektrizitate sarrera bat bertan omen dago; bestetik, auditorium inguruan erorketak egon direla esan dute, nahiz eta orain arte sustoan gelditu diren. Gainera Maala kaleko isurbideak eskola azpian piltzen direnez, usaina gora igotzen da. "Urbanizazio lan hauek udaletxearen ardura" direla esan digu Larraitzek, eta "udalak bere gain hart zen dituela" gehitu du.

## Banco Santander

Aintzane Zabala Urien.  
Salbador 11.  
Telefonoa: 76.82.11

Errenta  
aitorpenak  
egiten ditugu.

Orain Elgetan; jarri harremanetan eta ezagutu gure abantailak.



KONTXI  
ARRANDEGIA  
Salbador 5 Tel: 768009



## Hiart eta Andoni Bergarako trikiti txapelketan

Hiart Bolinaga eta Andoni Elortza, zazpi urteko elgetar hauek apirilaren 28anplazaratu ziren lehenengoz San Prudentzion. Bi urte daramatzate Bergarako Moises Aspiazu dantza sueltoko eskolan ikasten. San Prudentzion dantza erakusketa baten parte hartu bazuten ere, Bergarako Pazko jaietan benetako lana egiten ere badakitela erakutsi beharko dute. Gazteak badira oraindik ere, saio bikaina egingo dutela ziur daude etxeok behintzat. Zortetik onena opa diogu bikote honi. Elgetan Asentzio egunean ikusi ahal izango ditugu.



### Hitzaldia bularretako minbiziari buruz

Maiatzaren 22an, eta arratsaldeko 6:30etan, hitzaldia egongo da bularretako minbiziari buruz kultur etxean. Hizlaria, Donostiako Institutu Onkologikoko mediku bat izango da eta antolatzailea Gipuzkoako Emakume Masektomizatuen Elkarte izango da, Elgetako Udaletxearen laguntzarekin batera.

### Karate ikastaroa

Maiatza, ekaina eta uztaileko hilabeteetarako antolatu da ikastaroa, 10 urtetik gorakoentzat. Astelehen, asterarte eta ostegunetan izango da, 6etatik 7etara bitartean, polikiroldegian. Matrikula, 3.000 pta da eta irakaslea Salbador Gonzalez. Izen ematea, udaletxean edo Jose Ramon Lasaren bitartez egin daiteke.

### Ertzantzaren banda

Maiatzaren 5ean, Ertzantzaren banda etorriko da. Kontzertua, plazan izango da 12:30etan.

### Udaletxeko oharra

Joan den hilabetean hainbat kalte material gertatu dira herrian. Batetik udaletxe azpian kokaturik dauden buzoietan; bestetik eskoletan pertsiana eta leihoak hautsita agertu dira eta hormetan hainbat pintada. Honen aurrean, laguntza eskatzen du udaletxeak, kalte hauen eragileek horrelakorik berriro egin ez dezaten.

## Asentzio Eguneko Ospakizunak

- Maiatzaren 19an ermitaren inguruana antolatu da festa -

Joan den urtean berreskuraturako ohiturari jarraitzeko, aurtengoan ere, Gazte Asanbladak eguna antolatzeari ekin dio. Urtean zehar dantza ikastaro bat egin dute egun horretan ikusgai izango dena eta bazkari eta erromeriaz gain, goiztiarrenek, salda eta txorizoa hartzeko parada izango dute "Gure Bordan". Eguraldia lagun izanez gero pasadan urtean haina jende biltzea espero dute antolatzaileek.

Egun horretako egitaraua honokoa da:

**Goizeko 11etan:**  
Etxafleroak eta ondoren Asentziara oinez Trikiti Eskolako soinu-joleekin.  
- 11:30etan, Salda eta Txorizoa banatuko dira.

- 11:45, arrantza txapelketaren hasiera.  
- 13:00etan Meza.  
- 13:45, Txalaparta eta arrantza txapelketako sari banaketa.  
- 14:00, Iribaseko dantza eta trikiritixa.  
- 14:30, Bazkari herrikoia.  
- 16:30, Erromeria.  
- 17:00, Bolo txapelketa.  
- 18:00, EGako errifaren zozketa.  
Egunean zehar trikitalariak egongo dira jai giroten.

Bezperan, udaletxeko areto nagusian, Ozkarbi Abesbatzeren kontzertua egongo da, gaueko 9:30etan. Ondoren Gazte Asanbladako Lokalean kontzertua TTAK talde gaearen eskutik.

**zeleta jatetxea**

tel:768151

gustora sentituko zara



Galdaragintza arina  
Hoditeria  
Erremitteritza  
Soldadura homologatuak

**Antonio Rodrigues Da Cruz**

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA  
Tel: 76 81 01 Faxes: 78 90 14



## Elizamendi

Pasa den martxoaren 25ean pasa berri dugu Elizamendiko Ama Birjinaren jaia eta, urtero lez, bertara bildu ziren Angiozar Bailarako eta inguretako ume eta gurasoak, aspaldiko ohiturari jarraituz, umeen bedeinkazioa jasotzera.

Batzuentzat harritzekoa bada ere indarrean dirauen ohitura dugu Elixamendiko bedeinkazioa, bertan bizi direnak ez eze kanpora bizitzera joandakoak ere egun horretan erakartzen dituen horietakoa.

Angiozarko Mainddao auzoan, arratsaldeko ospakizuna izaten da bedeinkazioarena. Errezu eta irakurgairen baten ostean egiten da, ume guztiak, banan-banan eta formalidade haundiz, aldarera inguratu eta abadeak bi eskuak buru gainean ipiniz jasotzen dena.

### Eliza egoera txarrean

Bertaratu zirenak ohartuko ziren nola urtetik-urtera elizaren egoera, eta neurri baten inguruarena, hondatzen doan. Izan ere, bai lurtean eta baita hormetan nabarmenak dira brintzarak, lurraren etengabeko mugimendua adieraziz.

Hegoaldera jotzen duen horma zeharo pitzatur dago, elizaren erdi ingururarte heltzen delarik mugimenduaren eragina. Horrez gain aldare gaineko arkuan ere ondo antzematen da egoera larria dela: harriak elkarri eutsi ezinean ikus baitaitezke bertan. Kanpaia ere bere lekutik irten eta kendu egin beharra egon zen iaz.

### Bidea arazoaren sorreran

Egoera txar hau argitzera-koan, berez denon mesedetarako izan zen lan batetan ikusten du jendeak, neurri haundi batean, guztia- ren hasiera. Angiozartik Elgetarako bidea egiterakoan Elizamendiren azpikaldetik geratu zen amildegia haundia da eta, itxuraz, aurrez eusten zioten lurrak kentzerakoan gaineko presioak eraginda, gehiago ezinean, beherantz egin du.

Mugimendu horrek inguru- ne guztian dauka eragina, aurrealdeko zelaitxoak ere aldapa haundia hartu duelarik azken urteotan.



1977ko umeen bedeinkazioa Elizamendin. (Imanol Irigarainen argazkia)

### Artelan bikaina

Elizamendi bereizten duena beste edozein elizetatik bere Ama-Birjiña da, bularra haurtxoari ematen dauden imajina gutxi daude eta munduko elizetan barreiatu- rik. Hortik datorkio, beharbada, ume- entzako zaletasun hori Elizamendi- ri.

Imajinak gotiko estiloaren ezaugarri nabarmenak ditu, batez ere bere jantziak dituen toledure- tan gotiko flamenkoaren eragina erakutziz. Bestalde, ikusi duenak badaki, agertzen duen goxotasuna haundia dela, begiak erdi itxirik Jesus haurtxoari begiratzuz eta esku- mako eskuaz titia eskainiz. Dударik ez amatasunaren adierazpen ederra dela.

Erraz ondoriozta daiteke halako bitxia ezinezkoa dela gaur egun Elizamendin bertan edukitzea eta Angiozarko Parrokian dago den- bora hobeen itxaropenean, Eliza- mendin kopia bat dagoelarik ipinita.

### Hamar urte konpondu nahian.

Hain arazo larriak konpon- bide eskaxa dauka bertako ahalme- nekin konpontzeko eta ezinbestekoa izango da erakundeen laguntza.

Hori horrela pentsaturik Angiozar Bailarako Batzarrak 1987an Bergarako Udalari eta Gipuzkoako Foru Diputazioari ego- eraren berri eman zion konpontzeko aurreproiektua ere aurkeztuz.

Ia hamar urte geroago ara- zoa gero eta larriagoa da eta institu- zioen erantzunik ez da jaso. Aurten firma batze bat ere egin da iaz hasi berria den Kultura Diputatuari aur- kezteko eta bertakoen gogoak eta nahiak nondik nora doazen erakus- teko.

Aurtengoan ia Elizamendi- ren turno heldzen den zerrenda luze horietan, zatika ez bada ere konpontzeko, ohitura zaharren leku izateaz gain toki polita ere bada eta.


### MAIATZAREN 4an SAN MIGELAK

Bai, ez duzue gaizki irakurri, maiatzaren 4an San Migelak ospatuko dira Angiozarko Goimendi auzoan. Berez maiatzaren 8an da "San Migel Monte" eguna, baina aurreko zapatuak aukera gehiago emoten dituela eta, halaxe zelebratuko da.

Zazpitan Meza izango da Elizan eta ondoren luntxa bertaraten diren guztientzat. Bederatzietan auzo-afarian bilduko dira eta kanpoan bizi direnak, afalostean, Kanpazar jatetxean, aspertuarterko dantzaldia izango dute Gardokirekin. Inguratzen denak ez du umore faltarik topatuko.



# LEHIAKETA



## Birentzako afaria Arantxa Arrietarentzat.

Bai-bai, Ozkarbi Elkarteak emandako afaria Arantxa Arrietak jango du eta berak nahi duen pertsona gonbidatu ahal izango du gainera.

Batek baino gehiagok erantzun du Kultur Etxeko arkua zela, hala ere, duen tamaina erreala ikusi eta gero, zer den eta non dagoen esan beharrik ere ez da egongo ezta? Despistaturen bat ere izango denez esan dezagun Angiozarko elizako sarrera nagusia dela hiru aldaketekin desenfokatu dugun irudia.

Argazkia Angiozarren aterata egoteko Angiozarko jente gutxik idatzi du. Zergaitik ote da? Abilagoak ote dira elgetarrak?

Ale honetako argazkia ez dago desenfokatu beharrik, galdera zailagoa baita. **Zenbat urte dituzte argazkian ageri diren pagoek?** Galdera zail xamarra denez, San Roke ostekoak direla aurreratuko dizuegu. 20 urte gora-beherako errorea ere onartuko dugu.

Dakizuenez, urtea bete dugunetik afariak banatzen hasiak gara. Asmatzekoak ez dira izango lehen bezain errezak eta ziur orain jende nagusiagoa ere hasi dela kartak idazten. **Nori ez zaio gustatzen debalde afaltzea?**

Idatzi **Goibekokalera**, Salbador kalea 2, K ultur Etxea. Elgeta.



Izena eta abizena: \_\_\_\_\_

Erantzuna: \_\_\_\_\_

Bizilekua eta telefonoa: \_\_\_\_\_



## KOMIKIA






# Gaztiak lokala eukitziak ze ekarri leike?



**Bihargina (34 urte)**

Nik uste dot gauza onak ekarriko ditxula ez dabela gauza txarrik ekarriko. Lokalakin gaztiekin eingo ditxuen aktibidadien herri-xandako gauza onak ekarriko ditxu.



**Jubilatua (74 urte)**

Hori gero ikusik dou, euren jokaerak ikusitxa. Herrixak ondo ikusten badau nik be ondo ikusten dot. Ein leizken aktibidadiak, teatro, kontzertuak... Ondo ikusten dittut. Hori bai beste maila batzuk txarrik be izango dia. Gauza txarrik etorri leizke gaztien erantzunkizuna ikusitxa.



**Ikaslia (20 urte)**

Alde batetik kontzertuak, lokalak erabileria, dantzak, etab. eitteko. Lehiaketak eta eitteko be erabili leike. Gauza txarrik ez dot uste ekarri leikenik. Neretako gazte danok parte hartzeko lokala izango da.



**Bihargina (36 urte)**

Neretako ekarri leizken gauza danak onak bakarrik izan leizke. Kulturarako onak dien gauzak ekarriko ditxu, kirol aktibidadiak eitteko be lagungarria izan leike. Gaztiak biltzeko leku bat izango da, ez dau gauza txarrik ekarriko.



**Bihargina (54 urte)**

Nik gauza bat esango dotzuet, neretako oso ederra da lokala eukitzia edukazinarako, gauza kulturalak indartzeko... Segun ze jende daon gauza txarrik ekarriko ditxu ala ez.



**Andereñua (35 urte)**

Gauza onak. Nik inundik inora ez dot ikusten gauza txarrik ekarri leikenik, hori leku bat izango da biltzeko eta gaztien eginkizun edo gaztiekin nahi dituen aktibidadiak aurrera ateratzeko, lokalik gabe ezin da ezer ein asmoa euki arren.



Jesús Mari Montiel  
**ITURGINTZA  
 ETA BEROGAILUAK**  
 Aretkale 3.  
 Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE  
 ETA BAINUGELATAN**



Larunbata eta igandetan bertako babarrunak eta saiheskia erreta.

tel:768098



♈	<b>Aries:</b> Oiñ be aburriduta? Gora begira egoten baza gerotxuau be bai.
♉	<b>Taurus:</b> Hik daukak/n haixia hik, errota zaharren bat egongo dok/n hire faltan.
♊	<b>Geminis:</b> Abadiak ez hau ezagutzen, aste santuan ez dok/n eliza askotan zapaldu.
♋	<b>Cancer:</b> Kuadrozko frakak jantzi eta iñok ez dabela fitxaik etara? holan ez jaok/n jokatzek.
♌	<b>Leo:</b> Kostaldian oporretan eta ez dozula plaiarik zapaldu? zuk bai meritua.
♍	<b>Virgo:</b> Ez dakik/n aldabaldetrekun pronunziatzen? Noiz leidu dok/n azkenengo liburua?
♎	<b>Libra:</b> Ez dok aspaldixan afaririk euki? ba lagun bati eiñ gonbitia ta segi afaltzera takañuoi.
♏	<b>Escorpio:</b> Lotuan jokatu, oingo hilian kriston sorpresia hartuko dok/n eta.
♐	<b>Sagitarius:</b> Orain ere kristalak apurtzen? kristaleruan eskupekua ona eeeehhh?
♑	<b>Capricornius:</b> Hilebete honetan txapela ibili, uliak bere lekura joan artian behintzat.
♒	<b>Acuarius:</b> Agosturako planak eitten... Asentzio eguna bukatu baino lehenago? hori dok/n sasoia.
♓	<b>Piscis:</b> Betun piskat hartu eta zapatak garbittu usteldu baino lehen.

## Gillermo Larraña Hotelekua ( 31 urte )

**Noiztik lan honetan? Ia urte bat**

**Gustatzen jatzu daukazun lana? Bai.**

**Hotela lo eitteko ala bazkaltzera joateko?**

Normalian, jente gehixau etortzen da bazkaltzera.

**Hotelian lo eitten dau Elgeta bizitazera etortzen dan jentia?**

Bizitazera etortzen danak baino gehixau komertziantiek eitten debe lo hemen.

**Zer da errezaua barran egotia ala ohiak eitten ibiltzia?** Barran egotia.

**Jende gaztia joaten da hotelera?** Normalian batzuk bai.

**Kalimotxua ala zerbezia?** Niretako zerbezia.

**Zerbeza markarik gustukuena?** San Miguela.

**Zer da zure lanetik gutxien gustatzen jatzuna?** Barran inor ez dagoenian.

**Zer nahi zinuaz izatia txikitxan?** Eguraldi gizona.

**Hobbirik badaukazu?** Bai, bizikletaz ibiltzia.

**Elgeta ala Eibar?** Bixak.

**Zer falta da Elgetan?** Pub-en bat, gaztiendako.

**Elgetako jentia kin ondo konpontzen za?** Bai, oso ondo.

**Kiroliek eitten dozu?** Piskat, bizikletan ibili.

**Koloniarik erabiltzen dozu?** Momentu honetan ez baina neskiak, *Borago* kolonia eregalau zoztan .

**Zer eitten dozu barra atzian ez zaizenian?** Ugazabei lagundu.

**Telebista ikusten dozu?**

Piskat. **Zer?** Pelikulanbat edo bestela futbola.

**Musika talderik gustukuena?** Denetik piskat, The Police, Bob Marley,...

**Esan dozun gizurrik handixena?** Ez dot esaten.

**Hotelian pasau jatzuen anekdotiak?** Pasau, pasau jataz baina ez naiz gogoratzen.

**Zer funtzino bete bihadau Goibekokalek**

**herrixan?** Neri oso ondo pentsatzen jata euskara bultzatzeko eta, gainera herriko barrixekin enteratzeko ere ondo dago.

**Mr. Bean ala Martes y Trece?** Mr. Bean.



**IGANDE  
GOIZETAN ERE  
ZABALIK: 9-12.**

**ALDI**

Tel:  
76 80 98.

*Bandoni Bolinaga*

**METALAK**

**FS718**

Tel - Fax 76 80 64  
**ELGETA**



## ELGETAKO GAZTE ASANBLADA: LOKAL BERRIA, PARTEHARTZE HANDIA ETA DINAMIKA INDARTSUA.

Elgetako Gazte Asanbladak, 3 urte daramatza herriko kultur ekintzetan parte hartzen. Batik-bat ohitura eta herriaren suspertze lanetan dihardu. Astero egiten dute bilera udaletxeak utzitako lokaleaneta 30 pertsona inguru biltzen dira. Hilebete ingurutik hona proposamenak egin eta lan taldeak eratzten dira asanblada horietan. Ahalegin honen emaitza da ikastaro eta ekintza ezberdinetan 80 pertsonatik gora mugitzea. Adina eta ideologia ez dira oztopo gisa honetako lanak egiteko orduan.

Gazteen denbora libreari benetako irteera aurkitzea dute helburuetako bat eta honetarako toki aproposena Elgeta bera dela erakutsi nahi dute. Helmuga honetara iristeko, elgetarrok dugun hizkuntza amankomuna, euskara alegia, erabiltzea eta bultzatzearen alde daude. Honen adierazgarri nabariena, duela urte bat *Goibekokalekin* egin zuten apustua da. Gazte Asanbladakoak hemendik aurrera antolatuko dituzten ekintzetan, aldizkariak izan duen moduko oihartzuna edo handiagoa lortzeko prest daude.

Duela urtebete legez eratu bazen ere, ibilbide luzea darama Gazte Asanbladak. Plazan eta tabernetan agertzen ziren lehen kartel haiek mugimendu berri baten seinale ziren. Hainbeste urtetan Elgetak bizi zuen lozorrotik ateratzen zituen gazte eta adineko jende asko eta asko. 3 urtetan hainbat traba gainditu behar izan ditu EGAK eta duena izerdiz lortu du. Atzean gelditzen dira orainarte egindako ekintzak baina ez ahaztuta. Lana alperrik eginda ez egotea pentsatzeak betetzen ditu gazteak.



### AUTOFINANTZAKETA

Kultur talde bezala eratu zenean helburu batzuekin hasi zuten bere ibilbidea: euskararen normalizaziorako bidea jorratzea, ekintzak sortzeko talde dinamiko bat izatea, partaideen irudimena

eta partehartzea bultzatzea... Guzti honek bere zentzua duela uste da. Denborarekin inguruko herriekin dagoen harremana eta inplikazioa handiago gerta daitekeela uste da. Beraz, Elgetako herria suspertzeko ekintzak egitea eta ohiturak gogoraztea oso intersgarria zela pentsatu zeneta bide horretatik lan egingo

**Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.**



Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxa: 78 90 46

**HAIZEA  
TABERNA**



giro atsegina  
lagunartean  
egoteko.

**BILTEGI  
DENDA**

Kirol, Burdin, Menajea.  
Zugandik gertu, behar duzun beste.

**SALBADOR 24**  
Tel: 76 82 06



du EGak etorkizunean ere.

Gazte Asanbladaren funtzionamendua ere zehaztu zen. Proposamenak asanbladaren aurrean aurkeztu eta bertan onartu edo atzera botatzen dira. Aurrera doazen ekimenak lantalde baten ardurapean gelditzen dira eta adibide argia *Goibekokale* bera, edo Asentzio egunarena, eta gainontzeko ikastaro eta iharduerak (trikitixa, txalaparta, dantza, kontzertuak...). Funtzionamenduari dagokionez, neurri haundi batean behintzat, autofinantzaketa dute orain helburu. Udaletxearekin duten akordioan lokala lortu dute, baina gastu guztiei aurre egiteko bideak oraindik zehazteko daude. Bitartean, modu egokiago bat aurkitu artean, taberna irekitzea pentsatu da dirua

## ADIN GUZTIETAKO JENDEA EKINTZETAN

Adin mugarik ez du taldeak. Lau urtetik gorako adina duen jendea ari da partehartzen. 80 pertsonatik gora ari dira bada ekintza

*Neurri haundi baten autofinantzaketaren aldekoak dira. Gastu guztiei aurre egiteko bideak zehaztu gabe daudenez, taberna irekitzeko asmoa dute. Gestio ona eta antolaketa ezinbestekoak dira.*

dutenetik, 30 gazte inguru biltzen dira gaiak proposatu eta aztertze-ko. Ez dago zalantzarik, lokala eukitzeak dinamika berria sortu du.

Proiektu serio bat eskuartean izanik, funtzionamendu antolatua eta gestio maila egokia izatea ezinbestekotzat jotzen dituzte. Eta pa berri honetan ahal duten heinean behintzat, lanean jarraitzea nahi dute eta orain inoiz baino gehiago elgetar guztiengana iristea espero dute, adina eta ideologia ez baitira oztopo herria bizirik iraunarazteko eta ondo pasatzeko orduan.

Herritarren erantzuna oso irekia izan denez, hainbat ideia dituzte hurrengo hilabeteetarako: mendi irteerak, mus eta xake lehiaketak, partxis liga, diapositiba emanaldia k,



ateratzeko. Hala ere errealistak izan behar direla uste dute eta oraindik laguntzak beharrezkotzat jotzen dituzte.

eta ikastaro desberdinetan. Asanblada ostiralero egiten da eta lokal berria

Asentzio eguna...

Elgetako Gazte Asanbladaren agenda betetzen doa eta jendeak ere tokiren

bat egingo duela

espero dute.

*Gaur egun, Gazte Asanbladak 80 pertsonatik gora mugitzen ditu. Lokala dutenetik partehartzea ere asko igo da. dinamika indartsu batekin hasteko asmoa dutela adierazi dute, ikastaro, lehiaketa, mendi irteerak, etab. antolatuz.*

## ZABALA

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201



## HERMANOS S.A.

EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA



## Informatika ikastolatik ikusita

Aurrekoan Herri Eskolara egin zuen bisita *Goibekokaleko* erredaktoreak. Han bildu zen 6. mailakoekin. Aldizkarirako zerbait interesgarria jartzeko eskatzeaz bat, ordenagailu hitzarekin egin zuen topo. Ez genekien zer dela eta irten zuen hitzak horrela, bat-batean. Hala ere, eta gaia oso sakona denez, beraiek gaiari buruz dakitena idazteko esan genien. Horrelaxe bada, hurrengo lerroetako irakurgaia beraien esanekin osatuta dago: kexak, definizioa, erabiltzen dituzten programak, programak zertarako diren...

Guretzako informatika oso polita da. Gutxien ikasi behar den ikasgaia delako, arkatza, boligrafoa... ez direlako horrenbeste erabili behar eta ordu horretan ondo pasatzen dugulako.


Guk dugun kexa, ordenagailu oso zaharrak ditugula eta honen ondorioz, oso motelak, ganorabakoak eta obedientzia gutxiak direla da. Horregaitik gauza asko ezin ditugu egin. Guk eskatzen duguna ordenagailu berriak dira.

Informatika ordenagailuekin egiten den idazketa edo langintza da.

Gauza askotarako balio du, adib: idazkaritzarako, jolasteko, eskutitzak idazteko (eta inprimitzeko)...

Ez dakit jakingo duzuen baina guk orainarte WRITE eta LOGO programak ikasi ditugu.

-WRITE idazteko programa bat da, berarekin mutil lagunarentzako eskutitza idatzi dezakezu, eskuz egindako lan bat pasatu... eta ondoren inprimitu.



-LOGO berriz, marrazkiak egiteko programa bat da. Hiru pantaila ditu:

1- Idazteko da (beste pantaila batean marrazkia egiten duen larrik).

2-Marrazkiak bakarrik egi-

**Gauza askotarako balio du informatikak adib: idazkaritzarako, jolasteko, eskutitzak idazteko (eta idatzi ostean inprimitzeko)...**

ten ditu (teklatuan aginduak markatu behar dituzu).

3- Idatzi eta marrazkiak egite dira.

### ORDENAGAILUAREN ATALAK

Teklatua: teklatuan tekla ezberdin asko daude. Alfabetoko letra guztiak, bederatzi zenbaki... Guk ikasi ditugun beste tekla batzuen izenak ere aipatuko ditugu: retur (beste izen askorekin ere ezaguna), geziak (dordoka alde guztietara eramateko), borratzeko teklak, hutsuneak egiteko teklak...

Pantaila: teklatuan egiten diren gauzak agertzen dira. telebistaren antzerakoa da.

Disketerak: gureak bi disketera ditu, diskete handiak. Disketeak gauzak gordetzeko erabiltzen dira. Adibidez gauza hauek: Jolasak, idazlanak...

Guk esan dugu genekien edo gogoratu zaigun guztia. Espero dugu guztioi gustatzea idatzi duguna.

6. maila



**GRONDO**  
elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.

Tel: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

**VIVO**  
JANARI DENDA

**M<sup>a</sup> JESUS**  
**ARRAZOLA**

Tel: 76 81 31





## MAKAILOA PIL-PILEAN Sukaldaria: Anjel Berrixo. (Intxorta Elkarte)



### NOLA PRESTATU:

-Makailoa zatitu eta beratzen ipini. Ura bi aldiz aldatu.


-Berakatzak eta pipermina olio askokin frijitu lurrezko ontzi batetan.

-Berakatzak kolorea hartzean, lurrezko ontzia sutatik kendu eta olioak hozten utzi.


-Olioak hotza dagoenean, makailo zatiak bertan ipini (azala gora begira), eta su bajaran egin (ez utzi irakiten).

-Lurrezko ontzia gelditzeka eragin saltsa sendotu dadin.

### OSAGIAK (2 Pertsonentzako):



- 2 makailo zati.
- 2 berakatz.
- Olio birjina.
- Pipermina.



**Gomendioa:** Errezeta honen oinarria lurrezko ontzia mugitzeko eran dago. Horrela **ONGI MUGITUZ GERO** saltsa lodi bat lortuko dugu, maionesaren antzerakoa.

### IBAIBARRIAGA GARRAIOAK

E.Ibaibarriaga  
Tel: 768072  
Salbador zeharbidea 2  
ELGETA

### **EROSLE**

M. Asun Agirre

Salbador.26. Tel: 768190

### IRAMA

Instalazioak eta  
mantentze lanak



24 orduko zerbitzua  
mensatel: 900282828  
abonatua: 247262 tel:  
789057-768025



## "Memorial Valenciaga" Elgetatik

Urtero bezala afizionatu mailan garrantzi handia daukan Valenciaga memoriala Elgetatik pasatu zen. Espero zen bezala, Elgetarako igoera erabakiorra izan zen. Osa, Astarloa eta hirugarren txirrundulari batek aldegin zuten bertan. Osak Oñatin egin zuen erasoari esker Eibarko helmugara bakarrik heltzea lortu zuen.

## Piskanaka bere jokoa hobetuz doa Estampaciones Elgeta

Azken hilabeteetan Estampaciones Elgetak jasan duen krisia bukatzeaz dagoela dirudi. Hori antzeman daiteke behintzat azken bi partiduetan ikusitakoa ikusita. Aurreko alean adierazi genizuen bezala, nahiz eta partidua galdu (luzapenean) oso itxura ona eman zuten eta azken ihardunaldian ere berdintsu ibili dira. Nahiz eta lehen zatia kaskarra egin (29-32) bigarrenean oso defentsa ona egin ez aurkakoak erraz garaitu zituzten. Azken emaitza 79 eta 49 izan zen.

## Elgetako gazteak gutxitu fisikoen antzera



Gutxitu fisikoek ere kirolarekin gosatu dezaketela konturatzeko parada izan zuten Elgetako gazteak.

Orain arte futbito, saskibaloia eta eskubaloian jokatu ondoren, Bergarara joaten diren Elgetako gazteek gutxitu fisikoak nola jokatzen eta sentitzen diren jakiteko aukera izan zuten.

Lehenik gurpildun aukieratan ibili ziren eta ondoren zarata

ateratzen duen baloi batekin (itsuek erabiltzen dutena). Haurrek oso ondo pasatu zutela adierazi digute arduradunek.

Elgetan apirilaren 27an jokatu zuten futbi-

to partiduan ezin izan zuten garaienik lortu Antzuolaren aurka, nahiz eta irabaztea merezi (16 poste jo zituzten). Aurrerantzean elorrikoekin batera triangular bat egitea pentsatu da.

## PELOTA: PROFESIONALEK IKUSKIZUN EDERRA ESKAINI ZUTEN

Galarza III - Goñi eta Olaiola I - Zezeaga bikoteek ikuskizun ederra eskeini zuten Elgetako pilotalekuan. Atzeko kuadroetan urte asko punta-puntan dabilen bi pelotari genituen eta aurrean berriz, profesioaletara igo berri diren etorkizun handiko bi pilotari gazte. Partidua oso parekatua izan zen lehia erdialderarte, baina azken txanpan Galarza III.aren eta Goñiren esperientzia erabakigarriak izan ziren. Partidu horretan Galarza III.aren joko sasoi ona eta

Goñi eta Olaiolak profesioaletan gauza garrantzitsuak egiteko duten gogoia agerian geratu ziren.

Jaialdiari hasiera eman zion partiduan Agirre eta Oliden 12an geratu ziren Urionaguena eta Oregiren aurka. Partidu hau ez zen oso ona izan, batez ere galtzaileek egin zituzten hutsengaitik. Aipatzeko gauza bakarra Urionaguenak egindako erremateak izan ziren.

### 4 t'erdiko txapelketa

Ubera Lak eta Arantzetak aurrera jarraitzen duten bitartean

Peñalver eta Barrigon kanporatuak izan dira 4 t'erdiko txapelketatik.

Peñalverrek ongi hasi zuen txapelketa Treku oiartzuarrari 22 eta 8 irabaziz, baina bigarren kanporaketan Solozabal II.ak 22 eta 15 irabazi zion nahiz eta ongi jokatu. Barrigon berriz lehen kanporaketan eliminatua izan da Castilloren aurka 22-14 galdu ondoren. Uberak Castilloren aurka 22 eta 10eko emaitzaz irabazi zuen. Azkenik, Arantzetak, Bastia eta Oruesagasti utzi ditu Txapelketatik at.

**ER  
HARATEGIA**

**A  
S  
T  
I**

San Roke 6  
Tel: 768168.

Berezitasuna:  
Buztana.  
Pintxo gozoak,  
otartekoak.

**BOLATOKI**

TABERNA-JAETXEA



tel:768284

**M<sup>a</sup> Karmen  
Lenzeria**

Lenzeria eta  
kosmetika gaiak.

Salbador zeharbidea.  
Tel: 78 90 40



# FUTBITO: AY! TE VA-K BERE LEHEN GARAIPENA LORTU DU



Txapelak lehen postuan jarraitzen du.

Txapelketa bukaeran Patxi Tabernak ordaindu egin lezake Ay! Te Va-ren aurka jasandako porrota. Finalerdietako laugarren postua lortzeko lehiari dabilen taldeek ere porrot eginarren, azkenengo doazenen aurka galtzeak min handia egin diezaiekete. Partidu hau oso berdindu eta gogorra izan zen hasierahasieratik sarrera gogorak egon baitziren. Azkenean Ibaik lau minutu falta zirenean sartutako gol bati esker Ay! Te Va-k 5 eta 4 ko emaitza irabazi zuen.

Arratsaldeko beste partiduetan ez zen ezustekorik izan.

Lehen partiduan Heskeitatek erraz irabazi zuen, H.H.Hren aurka (10-5). Bigarren partiduan Txapelak Urieni irabazi zion uste baino arazo gehiagorekin (5-3). Aipatzekoa da partidu honetara H.H.Hkoak ez zirela arbitratzera azaldu. Arratsaldeko hirugarren partiduan Zeletak izugarritzko jipoia eman zion Iramari, Alainek jokaturako partidu bikainari esker. Azken emaitza 7 eta 0.

## Sailkapenak

### Neskak

	Jok.	Ir.	Ber.	Ga.	Pun.
1.- Joixon bertan	6	5	0	1	10
2.- Gaztiak	6	4	0	2	8
3.- Txalaixok	6	3	0	3	6
4.- Rirau	6	0	0	6	0

### Mutilak

	Jok.	Ir.	Ber.	Ga.	Pun.
1.- Txapela	9	7	1	1	15
2.- Heskeidak	9	6	2	1	14
3.- Zeleta	9	5	2	2	12
4.- Patxi T.	9	3	3	3	9
5.- Urien	9	4	0	5	8
6.- H.H.H.E.P.	9	3	1	5	7
7.- Ay! te va	9	1	2	6	4
8.- Irama	9	1	1	7	3

## Goleatzaileak

Jessica 11gol (Txalaixok)

Eneritz 11gol  
(Joixon Bertan)

Bea 8 gol (Txalaixok)

## Goleatzaileak

Haritz G. 31 gol  
(Txapela)

Oxel E. 21 gol  
(Patxi T.)


Koldo E. 13 gol  
(Patxi T.)

P  
A  
T  
X  
I  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A

Salvador 3  
Tel: 768093

Fernando  
Ojanguren

M<sup>a</sup> Jesus  
Mujika



M<sup>a</sup>  
**ESTHER**

Tel: 76 81 67

Publizitatea

76.80.19.

Deitu asteburuetan.

**OSTATU**  
**JATETXEA**

Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.  
Karta



## ARANTZETA AUZOA ETA ZORONDO ERROTA

-SAN BLAS ERMITAK DUEN EGOERA TAMALGARRIAREKIN EGIN DUGU TOPO-

Aurreko alean hasi genuen baserri eta auzoei buruzko atal honetan, Elgetako inguruak hobeto ezagutzea dugu helburu. Honekin batera tokian tokiko istorio eta bitxikeriak ezagutuko ditugu.

Joan den hilabetean Arantzeta auzoko Ojanguren baserriaz idatzi genuen. Atal honetan berriz, baserri hau kokaturik dagoen auzoa ezagutzeko parada izango dugu.

Arantzeta auzora joateko Izarreko bueltan dagoen errepeidea hartu behar dugu. Hasierako zuhaitzen artean aurkituko dugu, auzoa osatzen duten 9 baserrietako bat Andutza baserria halaber. Andutza ia desagertzeaz dago hasi eta untzaren azpian. Horma zaharrak dira aspaldiko bizipenen testigu, eta beraiei so eginez, pago eder eta lerdan bat inguruko handitasunaren azken testigu.

**Danok Bat errotak 13 baserriari ematen zien argi indarra. Errotari lanetan azkenengoz, Felix Ojanguren aritu zen, 1969. urte inguruan.**

Errekasto eta ur gardenak datoz Azkonabitzako maldetan behera. Kukua ere hor dabil eta oraingoan ere, udaberrero bezala txanponik gabe harrapatu gaitu. Pinadien iluntasunetik larre zabaletarantz habitzen gara. Baserri batzuen teilatu gorriak eta inguruko baratzak ikusten ditugu jarraian. Arantzeta baserria agertzen da lehenik. Bi etxebizitzatan dago banatua, eta etxaurrean daude arratsaldeko azken orduetan solasean bertako biztanleak.

Arantzeta erdikoan eta Ojangurenen ortuan dabilta. Urta-oro honek inguruak berpizten dituen heinean baserriarrei ere lana pilatzen zaie. Ojangurenen



Auzoko baserriak haundiena da Itturri. Karez zuritutako horma, bi arku eta bi atari eder ditu, eguzkirantz begira dagoen baserri honek.

San Martingo ermita ezagutu dezakegu, beronen lehenengo idatzizko erreferentziak 1625. urtekoak dira. Ongi zainduta eta lorez jantzita gordetzen dute Martin Deunaren ermita hau.

Berriz ere pinadietan sartzen gara, bide berdinetik aurrera jotzen dugun heinean, eta errebuelta itxiak igarota hiru baserri daude: Itturri, Castillo eta Arantzabal.



Olantzeta eta Zezia erreketatik hartzen zuen indarra Zorondo errotak (Danok Bat), bere bi pare harriak mugitzeko.

Itturri, baserri luze eta haundi bat da. Bi arku eta bi atari ditu eta zuriz karettuta dago. Giro lasai honetan daude ardiak, oraindik ere neguko hotzaz gordetzen dituen ile luzeaz jantzita. Baserri honen atzeko aldean ganbaretan egurra pilatzen da, eta lehenagoko gurdibideak belarrez estali dira. Alboan, baserriari izena ematen dion iturri eder bat dago eta honen pean aska haundia. Itturri baserriaren aurrean Arantzabal dugu Bertako jabeak konponketa lanetan daude eta baserri honen harrizko hormak dotore agertzen dira. Atarian zakur

zaindaria, zaunkaz ari da kanpotarren aurrean. Zakurrak adina harritzen dira auzotarrak, kaletarrok bertan ikusita. Arantzabal baserriaren aurrez-aurre baserri bitxi bat, Castillo. Ez du gainontze-



ko baserrien itxura, teilatutik gora dorre bat irretzen baita.

Hiru baserriei begira, San Blaseko ermita. Honi buruz dauden lehen idatzizko erreferentziak, 1862koak dira. Kanpoaldeko kanpaia 1756koa da. Egoera tamalgarrian dago baseliza hau, teilatuak behea noiz joko duen beldur daude auzotarrak. Itoinak eta hezetasunak, egurrezko zolua eta hormak desegin ditu. Aldarea eta bertako altzarien arrastorik ez da gelditzen. Ermitaren atzeko aldean, hainbat teila bilduta daude, norbaitek dagokien tokian noiz ipiniko zain. Laster otsailaren 3a, bertan ospatzeko aukera izango dugula espero dugu, ohiturak agintzen duen bezala.

Arantzabal eta Castillo baserrien artetik ateratzen den pistan behera jarraituz, Zezia baserrira hurbiltzen gara. Lehen bi baserri ziren, baina beraietako baten (bi bizitzakoa) zimentuak mugitu egin zirela eta bota beharra izan zuten, egoera harriskutsuan baitzegoen. Gaur egun Juanito aritzen da inguruak zaindu eta "ani-



San Blaseko ermitaren aurpegirik onena da hau. Teilatua eta barruko alde egoera negargarrian daude. Laster konponbidea aurkitzen ez bada eroriko den susmoa dute auzotarrak.

maliak gobernatzekoa. Zeziako etxostean ezkerretara hartuta Zorondo errotara (ezagunagoa omen da Danok Bat izenarekin) joan gintezke.

zenez bertara eramaten zuten ehotzera iriña lortzeko, baina garia ereiteari utzi ziotenean errotaren lana ere gelditu egin zen. Argi indarra ere sortzen zuela esan zigiten, eta 13 baserritaraino heldu zuten bertako indarra. Nahiz eta abandonatua egon nahiko egoera onean mantentzen da. Orain dela 25 urte jarri zen azkenengoz martxan, eta orduko errotaria Felix Ojanguren izan zen.

*Baserri ederrak ikusteko aukera dago Arantzeta inguruan. Hala ere, ia desagertuta dauden bi daude: Andutza eta Errekalde.*

"Danok Bat" errota 1898. urtean eraiki zuten eta Olantzeta eta Zezia erreketatik hartzen du ura. Arantzeta auzoan garia ereiten

Errotaren ondoan, eta erreka kontran, Errekalde baserria dugu eta erregistroen arabera, 1769koa da. Hormak baino ez zaizkio gelditzen gaur egun.

Zeziatik Juanitok esan zigun bezala "lau-lau" Beketxeraino heldu ginen. Leku ezkutuan dago Beketxe, ondo zaindutako pinadiaren erdian. Bertan, Beketxeko Jose eta semea aurkitu genituen entresaka lanetan. Beketxe (Bekotxe) 1725. urtekoa da, eta inguru horietan aurkitu genuenazken baserria.

Toki interesgarria da paraje hau. Kaletarrak bertan ikusteaz zeharo harrituta somatu genituen auzotarrak. Orain, ez ditugu gogaitu nahi gure presentziaz, baina merezi du, ikusiko ditugun beste toki batzuetara joatea.



Paraje eskutuan aurkitu genuen Beketxe. 1725eko baserria da eta Beheko etxea esan nahi du.



## PLATANUAK DIELA-ETA

Hasierako titulo hori leittuta ez deixela iñk pentsau hemen platano edo antzeko frutaz berba eiñ bihotenik. Gaiztuagoren batek honezkero pentsau dau beheko platanuaz jardun bihotela, baina ezta hori be. Jardunerako hartu dittudanak belarritik ahora bittartian erabiltzen dienak dia, "telefono movilak" ,bai.

Elgetan ondiokan ez dia asko ikusten, mendixan bizitziaren bentajak!, baina beheratuau dexente ikusten dia, eta , neri behintzat, iñuzentekerixa

*Arrarua izatiak badaukaz bere bentajak be. Norberak nahi dabena eiñ leike, baitta munduko gauzarik arraruena be; izan be, iñor ez da harrittuko arrraro baten arrarokerrixia ikusitta.*

totalak pentsatzen jataz. Hor ibiltzen dia inportante barrixak edo inportante itxurakoak, jarri platanuoi aurpegixan eta kalia zihar jardun eta jardun. Gainera, itxuria danez, inportantia izateko platanua biha dala. Ba ez, benetako inportantiek ez dabe holako zeregin ganorabakorik hartzen, hori gixajuen lana da.

Txarrena da erabili eta erabiltzearen poderioz horrek lerduok lortuko dabela erreminttioi danontzat biharrezkua izatea, eta danok erosi bihakoula. Ba, nerekin ez deixela kontau, lehen be ohittuta nao arraro samarra izaten eta horri be kontra eingotsat.

Gainera, arrarua izatiak badaukaz bere bentajak be. Norberak nahi dabena eiñ leike, baitta munduko gauzarik arraruena be; izan be, iñor ez da harrittuko arrraro baten arrarokerrixia ikusitta.

Normalak dienak berriz , beti normal ibili bihar, ezin ezer eiñ, beti iñok zer esango ete dabon bildurrez. Eta hola betirako, arrarokerixa bat nahikua da eta, ordura arteko normaltasun dana pikutara bialtzeko.

Platanuekin hasi eta arrrauekin akabau, egixa esan ez dakitt hau arrarokerixa haundi samarra ez ete dan baina neu gustora geratu nai. Animo bestiok be eta eizue burutik pasatzen jatzuen guztixa, iñok esango dabengattik merezi dau eta.

Jabier Aranzeta

### ANA LIBURUDENDA



Zatoz beste dimentsio batetara.

Tel: 768151

### Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

G o i b e k o k a l e

Helbidea: Salvador kalea 2, Elgeta (Gipuzkoa)

Telefonoa: 78.90.85. Faxa: 76.82.89.

e l g e t a k o k a l e





Argazkia: Antonio Iturrikastillo.

## Bazkaria

Bazkariak eta afariak aitzakia ona izaten dira erretratuak ateratzeko.

Argazki honetan, mutikote pilo galanta elkartu ziren, izan ere, jateko ohiturek segituan biltzen baitute jendea. Ez dirudi ez argazki honetakoak gose direnik. Biltzeko aitzakia ere jakin dugu zein izan zen. Erretratukoek Sabinen solterotako bazkaria egin zuten 1958. urtean.

Orain dela 38 urte ateratako argazkia dugu goialdean, Martintxo izena zuen jatetxearen aurrean. Jende asko gogoratuko da oraindik taberna honetaz. Herritik kanpora ere izen handiko taberna izan zen. Seguru ez zela batere txarto jaten bertan.


Nahiko zaila da izenak ematea orden konkretu batean, baina saiatuko gara.

Goitik hasita: **Bixente Askasibar** (txapelduna), **Peli Arantzeta**, **Jose Mari Igartua** (Angiozarkoa), **Sabin Arantzeta**, **Bittor Garai**, **Txomin Garai**, **Pedro Eguren**, **Andres Sarasua**, **Jesus Altuna**, **Kandido Bolinaga**, **Felix Irtzabal**, **Antonio Iturrikastillo**.

Behean: **Migel Elgoro**, **Jose Luis Arantzeta**, **Olarixa** eta **Alejandro Arantzeta**.

Zuen argazkien zain gaude. Erretratu zaharrik baduzu ez eduki etxean gordeta, bidali *Goibekokalera*.

Salbador kalea 2 Elgeta, edo bota udaletxe azpian dugun buzoira.



*Estampaciones*


**Elgeta**

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatua.





**EGAÑA**  
Soldadura



**EGAÑA**  
Gas  
industrialala

Berriondokua industrialdea 7

20690 ELGETA

Tel. 78 90 61 - Faxe 78 90 14



**ETXERAKO ETA  
INDUSTRIETARAKO**

- BEROGAILUAK
- AIRE EGOKITUA
- GASA

**ETXE BIZITZAK, GARAJEAK ETA  
LOKALAK ELGETAN**

**INFORMAZIOA:**

ELGETAKO UDALA  
TEL: 768022

ESARBE, S.A.  
TEL: 212354



**LEHENENGO FASEA BUKATUTA, BIGARREN FASEA MARTXAN  
Domingo Iturbe kalean.**

BABEZ OFIZIALEKO LAGUNTZA GUZTIEKIN